

IZENBURUA

Katgorri bat
nola kontsolatu

EGILEA

Begoña Oro

GAIAK

Natura. Animaliak.
Bakardadea.
Adiskidetasuna

GAITASUNAK

Gizartea eta
herritartasuna.
Ikasten ikastea.
Digitala

BESTE ARLO
BATZUEKIN
DUEN LOTURA

Naturaren Zientziak

ORRIALDE KOPURUA: 56



Galzorian nago?!



ZERGATIK IRAKURRI LIBURU HAU?

Oso modu sinplean eta samurtasunez gogorarazten digulako beti daudela maite eta laguntzen diguten pertsonak bakarrik edo galduta sentitzen garenean. Enpatiaren balioa eta besteen lekuan jartzearen garrantzia erakusten dituelako. Bai eta, liburua irakurritz, irakurlea espezie batzuk desagertzeko arriskuan daudela jabetzen delako ere.

ARGUMENTUAREN LABURPENA

Rasi bere ingurunean beste katgorririk ez dagoela konturatu denean, uste du bere espeziea desagertu egin dela eta triste geratu da, Lurrean bakarrik dagoela pentsatuz. Lagun-taldekoek, maite dutela adierazi ondoren, kontsolatzea lortu dute, parke eta basoetan bizi diren katgorriak erakutsiz. Rasik badaki ez dela berriro bakarrik sentituko, lagunaren maitasuna eta laguntza baititu.

NORENTZAT DA LIBURU HAU?

Era guztietako irakurleentzat, bereziki naturari eta, zehazki, animaliei eragiten dieten fenomeno berri izateko jakin-mina dutenentzat. Bai eta lagun-taldean abenturei buruzko kontakizunak atsegin dituztenentzat ere.

JARDUERA-PROPOSAMENA



BAKARKA

Proposatu ikasleei liburuaren edukia laburtzeko, galdera hauetara erantzunez:

- Zergatik dago Rasi kezkatuta?
- Nola saiatu da lagun bakoitza katgorria kontsolatzen?
- Nola lortu dute, azkenean, katgorria lasaitzea?



BIKOTEAK

Jarri ikasleak binaka eta eskatu **enpatia** hitzaren esanahia hiztegian bilatzeko. Horren ondoren, animatu ikasleak labur-labur idaztera nola islatzen den kontzeptu hori Rasiren istorioan.



TALDEA

Esan ikasleei imajinatzeko beste ikaskide bat etorri dela ikasgelara, inor ezagutzen ez duena, eta banatu ikastaldea eztabaida-talde txikitara. Zuen ustez, nola sentitzen da leku batera iritsi berri den pertsona bat? Zer egingo zenukete ikaskidea ondo sentitzeko? Zuek beste herrialde batera joango bazinete, nola nahiko zenukete hangoek hartzea?

Ikasleren batek esperientzia hori bizi izan badu edo hori egin duen norbait ezagutzen badu, gainerako ikaskideei kontatu diezaiela.

Azkenik, gidatu elkarrizketa bat, taldeetan ateratu dituzten ondorio guztiak bateratzeko.



NATURAREN ZIENTZIAK

Galdetu ikasleei zer dakiten dinosauroei buruz eta Lurretik nola desagertu ziren. Gero, aipatu desagertzeko arriskuan dauden animalien gaia, eta antolatu denen artean egiteko moduko elkarrizketa bat, gertaera horren kausak eta ondorioak aztertzeko, espezie mehatxatuen adibideak jartzeko eta prozesu hori geldiarazteko edo leheneratzeko har daitezkeen neurriak proposatzeko.

IDAZKETA-TAILERRA

Eskatu ikasleei labur-labur idazteko zer egingo zuten Rasi katgorria bezala bakarrik sentitzen den lagun maite bat kontsolatzeko. Gogorazi zein garrantzitsua den norbaiten lekuan jartzea, hari lagundu ahal izateko.